



mundukide

kooperazio kooperatiboa
cooperación cooperativa

2021

Txostena



www.mundukide.org



"Ez diezagutela sinetsarazi ezin dugula ezer egin, ez baita egia"



Iñigo Albizuri Landazabal
Mundukide Fundazioko lehendakaria

2021. urtea. Pandemia hor dago oraindik eta gerra bat prestatzen ari da Europaren bihotzean.

Denok zaugarriak garela gogorazteko beste oroigarri izugarri bat. Gaur daukaguna bihar desager litekeelako oroigarria.

Gatazka guztietan daude irabazleak eta galtzaileak, baina badirudi galtzaileak beti berberak direla. Arrakala soziala eta desigualtasuna handitzen ari dira, eta jende askok bere buruari galdetzen dio zer egin ote litekeen horrenbeste eta hain handiak diren arriskuak ekiditeko. Arrisku klimatikoak, geostrategikoak, sozialak...

Baina hau aldatu egin dezakegu. Mundukidek bere ekarpen txikia egiten du horrenbeste arazoren konponbidean. Tanta bat, beste batzuekin batuta korronte bihurtzea espero duguna. Hego Globaleko lur lehorra bilatzen duen ur tanta hori, gure kasuan, Mozambiken, Etiopian, Brasilen, Kolonbian eta Ekuadorren egiten dugun lanaren ondorio da. Eta gure programetako zuzeneko 17.100 parte hartzaileetan gauzatzen da. Tanta horretatik gure ekintzaren onuradun diren 74.000 pertsonak baino gehiagok edaten dute. Kooperatiben, GKEen, emaileen eta boluntarioen arteko interkooperaziotik sortzen den ekintza hori 50 erakunderekin eta 35 kooperatibarekin egiten dugun lankidetzan gauzatzen da. 2021ean 8 milioi euro baino gehiago lortu dugu gizarte eraldaketa bultzatzeko, lan kooperatiboa garapenaren eragile gisa baliatuz.

Dauden arazo ugariak ez gaitzela biktimismora eraman, Iparraldeko biztanleok pribilegiatuak izaten jarraitzen dugulako, eta beste asko beren aukeraren bila dabiltzalako. Gure egunerokoan eta inguru hurbilean lagundu dezakegu. Baina gauza bera egin dezakegu askoz urrunago ere. Mundukidek oso leku urrunetara hurbiltzen ditu horrenbeste bilatzen diren aukerak. Gainera, helburu berriak ezartzen dizkigun plan estrategiko berri bat daukagu, gure eragina handitzeko. Helburuok lortzeko ahaleginean jarraitzen dugu. Ziur gaudelako kooperazioaren alde lan eginez desigualtasunak eta gerrak ekiditen laguntzen dugula. Izan ere, lankidetzara bultzatzen gaituzten balioek gatazkak eta bidegabekeriak bultzatzen dituztenen aurka egiten dute.

Ez diezagutela sinetsarazi ezin dugula ezer egin, ez baita egia. Mundukide da horren erakusgarri ona.
Ez utzi biharko gaur kooperatu dezakezun hori!

www.mundukide.org



aurkibidea


Lehendakariaren gutuna	2
Misioa eta balioak	4
Mundukide gara	5
Lankidetza Hego Amerikan	6
Ekuador Programa	7
Kolonia Programa	8
Brasil Programa	10
Lankidetza Afrikan	12
Etiopia Programa	13
Mozambique Programa	14
Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza	16
Interkooperazioa	18
Datu ekonomikoak	20



MUNDUKIDE FUNDAZIOA

Iturriotz 27- 1º 20500 Arrasate-Mondragón • Tel. 943 772010

mundukide@mundukide.org • www.mundukide.org



CIF: G20673604 / D.L.: SS 405-2016 / Edizioa: Mundukide Fundazioa



Misioa

Tema: EXERCICIOS
Tema 7
Gure zeregin nagusia lankidetzeta programetan laguntzea da, bai eta proiektu solidarioak bultzatzea ere, tokiko pertsona eta erakundeekin lan eginez. Esperientziak, baliabideak eta jakintza partekatzen ditugu, inplikaturako aldean garapen autokudeatua eta integrala sustatzeko. Horretarako, lan kooperatiboaren munduaren elkartasuna aktibatzen dugu, Mundukideren balio eta printzipioek oinarrituta eta gidatuta.



balioak

ELKARTASUN UNIBERTSALA

Mundukiden parte hartzen dugunon lanak elkartasuna du oinarri, bai ekonomia solidarioan garatutako beste esperientzia batzuekiko eta baita demokrazia sozialaren alde diharduteneke ere, betiere bake, justizia eta garapen helburuak partekatuz.

LANA

Lana ekintza eraldatzailerik gisa hartzen dugu, aldaketarako ekintza bezala, garapena lortzeko bide moduan. Mundukiden uste dugu lana bera ere balioa dela, eta kapitalaren gainetik dagoela.

GIZARTE ERALDAKETA

Mundukideekook pertsonak eta jendartea bidezkoagoak izatea nahi dugu, eta horretarako, norbere buruaren kudeaketa maila handiagoa izatea nahi dugu arlo guztietan, genero harremanak barne; ikuspuntu horretatik, autonomia funtsezkoa da, pertsona, elkarte eta herri bakoitzak erabaki dezan nolako jendartea izan nahi duen.



МОНАСТЫР
МОНАСТЫР
МОНАСТЫР
МОНАСТЫР



**RED por la
SOSTENIBILIDAD AMBIENTAL
en la LUCHA CONTRA LA POBREZA**



Arizmendiarrietaren
Lagunak Elkarte



ESKUALDEKO GARAPEN SOZIOEKONOMIKOA

Hego Amerika

Kontraparte egituratuen lana indartzen laguntzen dugu, enpresa arloan, antolamendu arloan eta kooperatiba arloan, tokiko lidergoarekin eta Brasil, Kolonbia eta Ekuadorko herrietan gizartea eraldatzeko bokazioarekin.

Pertsonen
trebakuntza



Programako partaideak: **5.728**

Onuradunak: **28.640**

Inbertsioa: **880.487€**

Salmentak: **8.664.000€**

Kooperatibei
aholkularitza



Enpresa sozial berriak bultzatzea




Interkooperazioa



Merkaturatzea



Ekuador



**Yon Arruti
Chasco**
(Ibarra)



PROGRAMAREN HELBURUAK

Garapen sozioekonomiko jasangarria bultzatzea eta Ipar Mugako eta Amazoniako landa erakundeen elkartegintza indartzea.

2021eko BALANTZEA

- 2021ean, pandemiak aldzakako eragina izan du Ekuadorko eguneroko bizitzan, eta horrek aukera eman dio Mundukideri, identifikatutako aktoreekin egin beharreko lanaren hasiera definitzeko.
- Toisan Korporazioarekin (Intag bailara, Cotacachi-Imbabura) 10 enpresa sozial txikiren merkataritza, enpresa eta antolamendu gaitasunak handitzera bideratutako lanerako ildoak ezarri ziren, sarearen, berrikuntzaren, lehiakortasunaren, ingurumen kontserbazioaren eta emakumeen eskubi-deen ikuspegitik. Horrez gain, proposamen txiki bat egin zen Intageko landa eremuko 65 pertsonaren artean (63 emakume eta 2 gizon) arnas sistema eta sistema immunologikoa indartzeko erabiltzen diren tokiko sendabelarren ezagutza eta ekoizpena partekatze eta indartzeko.
- Cuenca finkatutako Ekonomia Herriko eta Solidarioaren Goi Mailako Institutuarekin (IS-TEPS) lankidetzak hitzarmen bat sinatu zen, ekonomia sozialeko eragileak indartzera bideratutako lankidetzak partekatu baterako.
- Wiñak erakundearekin (Archidona-Napo-Amazoniako kichwa erakundea) lekuan bertan eginitako diagnostikoa bete zen, eta 2022rako ekintza plan bat prestatzeko laguntza eman zen.



2022KO HELBURUAK

- Toisan Korporazioarekin batera, Cotacachiko 10 enpresa sozialen merkaturatze bateraturako bidea indartzea.
- Wiñak erakundearen 2022ko ekintza planari laguntzea eta segimendua egitea
- Aktore adierazgarriak identifikatzen jarraitzea, haiekin lan egiteko.



Luis Robalino (Toisan Korporazioko lehendakaria): Mundukideren presentziari esker, enpresa sozial txikiak indartu eta ahaldundutako aukera izango dugu. Enpresa txiki horiek batez ere Intag inguruko eta Cotacachi kantoiko emakume antolatuek bultzatzen dituzte, horien jasangarritasun sozioekonomikoan 1990eko hamarkadatik gure bailara mehatxatzen ari den mega-meatzaritzaren aurkako bizi eta erresistentzia alternatiba bat bilatuz.

PROGRAMAREN HELBURUAK

Nariñoko Pasto emakume indigenen artean elikadura subiranotasuna, familia ekonomia eta erresilientzia indartzea kanpoko gertakarien aurrean.

2021eko BALANTZEA

2021ean, programak hasiera zaila izan du, Kolonbiako egoera politikoa eta lanuzte nazionalak direla eta, Ivan Duqueren gobernuak proposatutako zerga erreformarako proiektuaren iragarpenak eraginda. Behin lanean hasita, ikusi dugu programaren onuradun diren taldeek asko sufritu dutela pandemiaren ondorioz, eta desegituraketa gertatu dela zenbait kasutan. Apurka-apurka, programan interesa daukaten talde berriak sortzen ari dira, honako hauek erakarrita: ekoizpen kostuak gutxitzea eta nekazaritza ekologikoaren ekoizpen metodologia hobetzea.

Mundukideren lantaldea lekuan bertan egituratzeko, denbora behar izan dugu, eta, batez ere, landa eremuko paradigma aldatzeko barneratu behar izan dugu, asistentzialismoan erori gabe.

	JARDUERA	TRESNA	EMAITZAK	PERTSONA ONURADUNAK	EMAK.
5 GERO- BERDINTASUNA	Genero berdintasuna, emakumeei baliabide ekonomikoak eskuratzen laguntzea			408	313
2 GOSERIK EZ IZATEA	Nekazaritza ekologikorako trantsizioa	Ereduaren trantsizioa, nekazaritza ekologikoari buruzko prestakuntza- ren bidez		408	313
13 JASOTZEN POTENTIALA	Autokudeaketa funtsak	Gaikuntza eta hastapenak	8 fondo berri	120	90

2022KO HELBURUAK

- Landa hedapeneko eredu bat finkatzea, asistentzialismoaren egungo paradigmatik kanpo egongo dena, ekoizpenean diharduten emakume indigenen partaidetzatik eta haien aukera sozialetatik abiatuta. Proiektuan emakumeen benetako parte hartzea handitzea, bai proiektuan –emakumeok ahal-
dunduz–, bai indigenen gobernantza egituretan.
- Merkaturatzeko zirkuitu laburren sare txiki bat sortzea.



Aura Chalapud (San Juan Ipialeseko Resguardoa): Mundukidek gure chagra-k hobetzen lagundu digu, jatorrizko haziekin. Gainera, Mundukidek handitu egin du lehendik erabiltzen ari ginen aurrezki funtsen kapitala, gure chagretan eta laborantzetan kolektiboki inbertitzeko.

PASTOKO BIRZIKLATZAILEEN KOLEKTIBOA



Asier Elorza Ugarte
(Nariño)



PROGRAMAREN HELBURUAK

Birziklatzaileen erakundeak artikulatzea, Pasto eskualdean birziklatze zerbitzua emateko erakunde bakarra sortzeko.

2021eko BALANTZEA

Birziklapenaren sektoreko liderrak identifikatu eta prestatzeari eman zaio lehentasuna. Egoera ezegonkorri aurre egin behar izan diogun arren, programak Pastoko Birziklatzaileen Aliantzaren eta helburu desberdinak dituzten beste erakunde batzuen arteko harremana sendotzea lortu du. Aldi berean, masa kritiko nahikoa eratu da alkatetzari hondakin solidoen kudeaketa integralerako plana (PGIRS) betetzeko exijitzeko; hola, urte amaierarako aprobetxamendurako sailkapen estazio bat (ECA) edukitzea lortu da, non autokudeatutako talde bat jarduera ekonomikoarekin hasi baita. Birziklapen basean sortutako itxaropena handia da eta 2022rako emaitza onak espero dira.

2022KO HELBURUAK

- Pastoko Birziklatzaileen Elkarteen arteko Aliantza (ARP) sendotzea eta aprobetxamendu zerbitzua ematen parte hartzea.
- Aliantza horretan bazkide gisa parte hartzen duten ofiziozko birziklatzaileen kopurua handitzea.
- Hego-mendebaldeko birziklatzaileen elkarte (ARSOC) sendotzea eta, horren bidez, hego-mendebaldeko hiriburuetan ARPren antzeko aliantzak sortzea.

	JARDUERA	TRESNA	EMAITZAK	PERTSONA ONURADUNAK	EMAK.
--	----------	--------	----------	------------------------	-------



**Hazkunde
ekonomikoa**

Tarifa

Tarifa igotzea (birziklatutako kg bakoitzeko zerbitzu publikoari dagokion gehigarri bat) materialaren balioarekiko

189

142



**Ganorazko
lana**

Elkartek eta haien arteko antolamendua artikulatzea

Alkatetzarekin negoziatzeko ahalmena, materiala areagotzeko ahalmena eta prezioa industria eraldatzailerekin negoziatzea

189


142



Maribel Tutistar (Pastoko emakume birziklatzaileen kolektiboa): "Mundukideri esker, birziklapenaren munduari buruzko ezagutza teknikoa eta gremio arlokoa eskuratu dugu. Aurretik ezagutzen ezagutzen jarraitu nahi genuke gremio gisa aurrera egiteko".



Brasil



KOOPERANTEAK

PROGRAMAREN HELBURUAK

Lurrik gabeko langileen mugimentuko asentamendu eta kanpalekuetako familien garapen sozioekonomikoan laguntzen dugu, erreferentziazko tokiko pertsonak kudeaketan trebatu eta kooperatiben jarduna hobetzeko, ekoizpenetik hasi eta komertzializazioraino.

2021eko BALANTZEA

Covidaren krisiak Programaren lana markatzen jarraitu du 2021ean. Urtearen lehen erdian, 512 lagunentzako egindako 4 prestakuntza saioak eta laguntzak telematikoki egin ziren. Urtearen bigarren erdiak presentzialtasunarekin hasteko balio izan zuen, bai laguntzetan, bai prestakuntzetan, nahiz eta pandemia aurreko normaltasunetik urrun egon oraindik.

2021ean aurreko urteetako lanei jarraipena eman zaie. Ceara estatuan, bost nekazaritza industria abian jartzeko prozesuarekin jarraitu dugu. MSTren merkaturatze prozesuei eman beharreko laguntza indartzeko, salmenta publikoko sistemak sendotu eta denda berriak –“Armazems do Campo”– ireki dira, Mundukideren parte hartzearekin eraikitako denda ereduari jarraituz. Azkenik, hegoaldeko estatuetako segimendu taldeei laguntzen jarraitu dugu. Kooperatibei zuzendutako laguntza telematikoki egin da urtearen lehen erdian, eta presentzialtasun handiagoz bigarren erdian. Guztira, 5.011 bazkide biltzen dituzten 21 kooperatibari lagundu zaie.

Azkenik, urteko lorpen gisa, kooperatibak prestatzeko e-learning plataformaren ezarpena nabarmendu behar da, aurreikusita zegoen bezala. Ezarpena Josue de Castro Hezkuntza Institutuarekin (Instituto de Educação Josué de Castro (iejc.edu.br) egin da, eta bai plataforma bai plataforma barruko prestakuntza edukia sortu dira.



Olcimar da Rosa
(Paranako kooperatiben
elkarteko lehendakaria)

“Nabarmentzekoa da eta oso harro gaudela MST eta MUNDUKIDEn arteko aliantzarekin, izan ere, Fundazioak bere esperientzia kooperatiboa partekatu du gurekin 15 urte baino gehiagoko lankidetzaren bitartez.

Paranan, elkarketa hori Nekazaritza Erreformatarako Kooperatiba Zentralaren (CCA/PR) eta Mundukide Fundazioaren bidez gauzatzen da, eta oinarrizko kooperatiben zuzeneko segimendua egin da, gure kooperatibak indartu dituen kudeaketa prozesua, elikagaien ekoizpena eta asentamenduen garapena hobetzeko. Uste dugu oraindik asko dugula aurrera egiteko eta eraikitako lankidetzaren alorrean, eta euskal herriaren esperientzia historikoak asko lagunduko digulakoan gaude”.



Natxo De Vicente Casillas
(Rio Grande do Sul)



Marga Pinillos Alejo
(Ceará)



Julio Martínez Arijá
(São Paulo-Minas Gerais)



Iker Cabrejas De La Torre
(Ceará)



Jon Etxebarria Gaztañaga
(Paraná – Santa Catarina)



Thaile Lopes (CEAGRO prestazio zentruko koordinatzailea): “Esku askok eraikitako historia komun bat dugu Mundukide eta CEAGROk. Bi herrialde desberdin izan arren, elkartzen gaituzten loturak eta borrorak ditugu, eta esperientziak partekatuz, gure kudeaketa- eta lankidetzak-eredua eraikitzen laguntzen dizkigute. Horrela eraiki genuen elkarrekin Herri Nekazaritzaren Erreformaren eta eraldaketa sozialaren aldeko borroka.”.



	JARDUERA	TRESNA	EMAITZAK	EMAKUMEAK
8 LAN DUNA ETA BAZKIDIA EKONOMIKOA	KOOPERATIBEI KUDEAKETAN LAGUNTZA	• 5 kooperante • Tokiko 3 lantalde • Boluntario 1	Lagundutako 21 kooperatiba 4 estatutan, 5.011 bazkide koop.ekin	• Kooperante 1 • Boluntario 1 • 1.753 bazkide (%35)
4 KALITATE ONERO HEZKUNTZA	PRES-TAKUNTZA	4 prestakuntza (Ceara, Parana, Rio Grande do Sul eta AdC Nacional)	512 pertsona prestatuta	205 emakume
5 GEROA-BERDINTASUNA	GENEROA	• Emakumeei 2 ekintzailatzatan laguntzea Hegoaldean. • Ipar-ekialdeko kooperatibei berdintasun planetan laguntzea.	• 3 emakume (bi genero koordinatzaile –hegoaldea eta ipar-ekialdea– eta teknikari bat –hegoaldea–. • 48 emakume emakumeen ekintzailatzetan.	
17 ITUNA, HELBURUAK LORTZEKO	INTERKOO-PERAZIOA	Kooperatiben arteko interkooperazioa	• Ekoizpen sektoreko Merkaturatze Mahaigain Nazionala. • Ekoizpen kooperatiben bigarren mailako 4 estatu kooperatiba eta MSTren beste 16 lankidetzak instantzia. • Armazens do Campo-en sare nazionala kudeatzen duen taldea. • 77 pertsonari zuzenean laguntzen.	36 emakume gaitu (%46)
12 EKOIZPEN ETA KONTSUMO ARDURATSUA	EKOIZPEN EKOLOGIKOA MERKATURATZEA	Laguntza: • 8 denda fisiko berri eta 6 denda berri ireki dira. • Aurrez irekitako 7 denda fisiko eta 2 online denda sendotzea.	114 pertsona (%76, 30 urtetik beherakoak)	67 emakume

2022KO HELBURUAK

- Armazens do Campo-ak laguntzeko eta indartzeko programa inplementatzea, denda guztietako ekoizpen prozesuak sistematizatuz eta estandarizatuz, ERP kudeaketa sistema bat ezarri sare osorako.
- Kooperatibetan aurrez aurreko laguntza berreskuratzea. Hegoaldeko hiru estatuetan, laguntza taldeen bidez finkatuta dauden kooperatibei laguntzea lehenetsiko dugu. Minas Gerais eta Sao Paulon egiten dugun lanaren oinarria MSTren merkaturatze lankidetzan egindako ahalegina da. Eta ipar-ekialdean, Ceara estatuan bost nekazaritza industria martxan jartzeak eta sendotzeak jarraipena emango dio programaren lan lagusiarri.



Afrika

ESKUALDEKO GARAPEN SOZIOEKONOMIKOA

Pertsonen gaitasunak indartzen laguntzen dugu, beren garapen sozioekonomikoari eta beren komunitateei lagundu diezaieten, Mozambiken eta Etio pian, besteak beste.

Pertsonen trebakuntza



Programako partaideak: **11.395**

Onuradunak: **45.640**

Inbertsioa: **542.703€**

Salmentak: **1.500.000€**

Nekazaritzako garapena



Ureztatzea



Laguntza tekniko




Hornidura eta merkaturatze sarea



Etiopia



**Jorge Lima
Gordillo (Oromía)**



PROGRAMAREN HELBURUAK

Nekazari familien nekazaritza produkzioa eta produktibitatea hobetzea, gaikuntzaren bidez, laboreak dibertsifikatuz, erabilera bikoitzeko laboreetan (elikagaietan zein merkataritzan) nekazaritza praktika egokiak inplementatuz eta intsumoak eta nekazaritza kredituak eskuratzeko erraztasunak emanez.

2021eko BALANTZEA

Tigray-ko gatazka armatuak eta larrialdi egoeraren ezarpenak markatu dute urtea. Programaren helburua lortzeko, produkzio garai bakoitzerako nekazaritza jarduera desberdinak planteatu ziren. Zehazki, euriteen garai laburrean, 100 emakume baino gehiago bildu ahal izan ziren 6 barrutitan, fruta arbolen baratzeak sortuz frutagintza sustatzeko. Horrek ekarri du balio komertzial handiko 5.500 fruta arbola landatzea. Tamalez, garai euritsuko jarduerak atzeratu egin ziren gatazka armatuaren ondorioz. Azkenik, garai lehorrean, etxeko hegazti hazkuntzaren sustapenean zentratu da programa, 60 familiaren artean oiloak eskala txikian haztea sustatuz.

2022KO HELBURUAK

- Arsiko nekazaritza eta abeltzaintza produkzioa eta produktibitatea handitzea.
- Emakume nekazariei laguntzeko harreman instituzional eta komunitarioak sendotzea, ekoizle elkarteei eta familia buruei laguntza emanez, emakumeen ahalduntze ekonomikoa indartzeko helburuarekin.
- Ingurumen sektorean lan egiten hastea, eremu degradatuen berreskuratze eta kudeaketa jasagarri komunitarioa sustatuz.




JARDUERA	TRESNA	EMAITZAK	EMAK.
Nekazaritzako eta abeltzaintzako ekoizpena sustatzea	Gaikuntza, eta intsumoak eskuratu ahal izatea	Arsiko 6 kebeletako nekazariak erabilera bikoitzeko (elikagaiak eta errenta) nekazaritza produkziara bideratutako intsumoak eskura ditzakete.	142
Onuradunak	Elkarteen arteko koordiazioa eta artikulazioa	• Proiektuan parte hartzen duten 660 emakume. • Guztira 2.640 onuradun	%70



Tigist Hasoo (nekazaria): Programari esker hazitako oilaskoek, gure familiakoan helikadura hobetzeko balio du eta soberakinak komertzializatzeko.



Mozanbike



PROGRAMAREN HELBURUAK

Lichinga Pemba korridoreko tokiko biztanleen gaitasuna handitzea, bidezko garapen jasangarriari lagunduko dion errenta sortzeko, pertsona horiek autonomoak, erresilienteak eta buruaskiak izan daitezen.

2021eko BALANTZEA

Cabo Delgadoko gatazka armatuak baldintzatu du programa; izan ere, Mozambikoko Gobernuak, nazioarteko indar militarren laguntzarekin, matxino jihadistiei aurre egiten die duela lau urte baino gehiagotik. Gatazkak pertsona asko bere bizitokitik desplazatu behar izatea eragin du, eta berekin ekarri du probintzia barruan pertsona taldeak lekuz aldatzen ibiltzea, hain emaitza onak lortuak zituen programaren metodologia praktikan jartzea oztopatuz.

Bertan bizi den egoerak planteamendua aldatzera behartu gaitu, eta Cabo Delgadoko probintzian posizio kontserbadorea hartu behar izan dugu, orain arte lortutakoa sendotzeko asmoz; Niassako probintzian, berriz, haztea eta programaren inpaktua zabaltzea da helburua, bai lehendik lan egiten dugun lekuetan, bai barruti berriak irekiz.

Era berean, erakunde finantzatzaileekin eremu geografikoan malgutasun handiagoa negoziatzea lortu da, inpakturik handiena izan dezaketen lekuetan jarduerak inplementatzeko.

Hala, zera nabarmendu behar da:

- 1) Jarduera irekitzea Niassa probintziako barruti berrietan (Lago, Sanga, Ngauma eta Mwembe), Marrupa, Majune eta Mandimba barrutiek batera Niassako 7 barrutitan egoteko. Cabo Delgadon, zailtasunak zailtasun, Balaman, Montepuezen eta Namunon jarraitzen dugu. Horrek esan nahi du Mozambikoko ipar korridoreko hamar barrutitan gaudela.
- 2) Lantaldea: Mundukideko taldea lau kooperantek eta 29 pertsonako tokiko talde batek osatzen dute, tartean ekoizpen arduradunak, administrazio arduradunak eta zaindariak.
- 3) Ekoizpena: bi ekoizpen lerro landu dira. Alde batetik, labore finkatuaren, hala nola sesamoan eta barazkietan, programak gero eta laguntza zeharkakoagoa ematen du, intsumoak eskuratu ahal izatea bermatuz eta autokudeaketa sustatuz. Bestalde, labore berri edo ez hain finkatuarako (guandua, mungoa, babarrun arrunta, soja) laguntza zuzenagoa ematen da, laguntza teknikoan (nekazaritzaren nekazari metodologia), intsumoen eskurapenean eta komertzializazioa erraztean oinarritua, nekazaritzaren ekoizpena dibertsifikatu, errentagarri, jasangarri eta autokudeatuaren alde eginez.
- 4) Komertzializazio sarea: Cabo Delgadon tokiko merkatariarekin lanean jarraitzen dugu, herrixketan nekazaritzako intsumoak (haziak, ongariak...) errazago eskuratu ahal izateko.

KOOPERANTEAK



**Elena
Ramos De la Cruz**
(Niassa)



**Alfonso
Nuñez Corvinos**
(Cabo Delgado)



Fabrizio Graglia
(Cabo Delgado)



**Beñat
Arzadun Olaizola**
(Niassa)



	JARDUERA	TRESNA	EMAITZA	EMAKUMEAK
	LAGUNTZA TEKNIKOAK	Akordioak tokiko 9 elkarterekin	117 instrukture	18 emakume instrukture
	NEKAZARITZA PRODUKZIOA	Labore hauek bultzatu dira: sesamoa, babarrun arrunta, soja, mungoa, guandua, ba- razkiak eta fruta arbolak.	2.750 ha baino gehiago produ- kzioan, 1.250.000 milioi eurotik gorako balioa kalkulatzeko zaienak.	
	INTSUMOEN KOMERTZIALIZA- ZIOA	45 akordio intsumoen tokiko banatzaileekin	113.600 euro entregatuta	
	ONURADUNAK	Zuzeneko 10.735 parte hartzaile	43.000 onuradun	Zuzenekoetan, %25 emakumeak; zehar- kakoetan, %52



Alfonso Nuñez
(Kooparantea Cabo
Delgadon)

“Afrikan badira gerra batzuk munduan ezagutzea komeni ez direnak, baina gerra horiek pairatzen dituzten pertsonen sufrimendua komunikabideek erakusten dituzten gerretakoa bezalakoa da. Cabo Delgadoko probintzian dagoen gatazka armatuaren ondorioz, etxetik ihes egin ostean Mundukiderra hurbiltzen diren pertsona desplazatuekin ari gara lanean, familia osoek nekazaritza jarduerari heldu eta beren bizimoduari berrekin diezaioten. Goraka datorren lan hori gorabehera, Mozambike iparraldeko 10 barrutitako 50.000 pertsonari nekazaritzako ekoizpena eta komertzializazioa handitzen laguntzea da Mundukideren lehentasuneko misioa”.

2022KO HELBURUAK

- Niassako probintzian programaren hazkundera sendotzea.
- Programaren inpaktua handitzen lagunduko duten metodologiak lantzea eta finkatzea.
- Sustatzen diren teknikak/laboreak aplikatzeko beharrezkoak diren intsumo, material eta ekipamenduak eskuratzen laguntzea.
- Merkatuan sartzen laguntzea soberakina saltzeko.



Enelesse Devisone: (Niassako nekazaria):

“Oso eskertuta nago Mundukiderekin, soja-
ren hazia prezio normalean saldu zidalako,
ereiteko teknika erakutsi zidalako eta prezio
oneko merkatua bilatu zuelako. Salmenta-
ren balioarekin txapazko teilatua duen etxe
bat eraiki nuen, eta semea unibertsitatera
bidali. Datorren urtean handitu egingo dut
soja, sesamoa eta boer babarruna ekoizteko
eremua”.



**GEHI
KOOP**

Gizarte Eraldaketarako
Hezkuntza Interkooperatiboa

GIZARTE ERALDAKETAREN BEGIRADA ZABALTZEN



GEHIKOOP LABURPEN BIDEOA:
<https://youtu.be/KxcylzYvg1A>



GEHIKOOpek ikuspegi lokal-global batetik lan egiten du, erakunde aliatuen ikuspegia eta pentsamendua ekarriz, pertsonen gizartearekiko eta gure ingurunearekiko duten erantzukizuna ikuspegi global batetik sustatzeko.

Proiektua lehenetsunezko hiru talderi zuzenduta dago:

- 1 Ingurune kooperatiboa:** gizarte eraldaketaren arloan ibilbide luzea duten eta gaiarekiko sentiberatasuna erakusten duten kooperatibetako pertsonen zuzendua. Orain arte Arizmendi Ikastola, Fagor Ederlan, Copreci eta Maier izan dira prozesuko protagonistak.
- 2 Hezkuntza ingurunea:** lerro honen helburua pertsona solidario bat garatzeko baliabideak sortzea eta zabaltzea da, begirada kritiko lokal-global eta ekintzailearekin. Horretarako, Mondragon Unibertsitatearekin eta Arizmendi Ikastolarekin elkarlanean ari gara.
- 3 Gizartea, oro har:** bai kooperatibistekin bai ikasleekin egiten diren ekarpenek eta ibilbideek gizarte osora iritsi beharko lukete. Zaindu egiten da, batetik, ibilbide bakoitzaren zati bat komunitateari –zentzurik zabalenean– itzultzea, eta, bestetik, komunitateak berak gizarte eraldaketarako prozesuetan murgiltzeko ekina izatea.

INGURUNE KOOPERATIBOA

Azken bi urteotan egin diren hausnarketa eta prestakuntza saioetan ARIZMENDI IKASTOLA, COPRECI, EDERLAN eta MAIEReko talde eragileek parte hartu dute, eta Brasilgo Lurrik Gabeko Langileen Mugimenduko 4 kooperatibarekin (COCAVI, COOPAN, COOPERUNIAO eta CAMINHOS do SABER) jardun dute lanean. Aurreneko ezagutza bilerak modu birtualean egin ziren, eta 2021eko azaroan aipatutako kooperatibetako eta zuzendaritza nazionalako 8 kideren bisita jaso genuen.

Bisita horri esker, kooperatiba aliatuen artean interakzioan jardun ahal izan genuen; izan ere, aurrez aurre elkar ezagutzeaz gain, komunean ditugun arlo teknikoak, erronkak, kontraesanak eta bertuteak landu genituen elkarrekin. EROSKI, Mondragon Unibertsitatea eta halako kooperatiba interesgarriak sakonago ezagutzeko ere balio izan zuen bidaia.

GEH



**Lillian
García**
(Cocavi
kooperatibako
albaitaria)

Oso txundituta geratu naiz hezkuntzari eta prestakuntzari ematen zaien garrantziarekin. Arreta handia jartzen zaio bazkide langileen prestakuntzari, horrek hemengo kooperatiben kudeaketaren kalitatean dakartzan ondorioekin. Kalitate horrek eta profesionaltasun horrek asko erakusten digute. Mundukiderekin asko ikasi genuen Brasilen hasitako lanetik. Gure kooperatibek asko hobetu zuten pertsonen prestakuntzan, eta hemen egin dugun bisitan asko ikasi dugu prestakuntza guneak indartzeak eman ditzakeen emaitzei buruz. Hezkuntzan egindako lanaren emaitzak bertatik bertara ikusi ditugu.



**Cesar
Bastardo**
(GEHIKOOpeko
Ederlaneko
ordezkaria)

EDERLANen helburua, GEHIKOOP proiektuan sartzeko, munduko beste kooperatiba batzuekin esperientziak ezagutu eta trukatzeari izan zen –eta hala izaten jarraitzen du– gizarte eraldaketaren ikuspegia zabaltzeko. Horretarako, oso baliotsua iruditzen zaigu MSTko kooperatibetako pertsonekin espazioak partekatu ahal izatea, sistema kapitalistan jardunez kooperatiba gisa ditugun zailtasun eta erronkei buruz eztabaidatzeko, baina betiere gizartearen eraldatzeko bokazioarekin.

HEZKUNTZA INGURUNEA

GEHIKOOPen hezkuntza arloan dihardugunok Mondragon Unibertsitatearen eta Arizmendi ikastolaren zenbait campusekin lankidetzan igaro dugu ikasturtea. Ikasleen irteera profilean elkartasun unibertsala sustatzen duten printzipio eta balio batzuk txertatzeko helburuarekin egin dira saioak. Guztira 20 ikasle talderekin lan egin dugu eta 30 bat irakasleren laguntza izan dugu.

JARDUERA

TRESNA

EMAITZA

EMAKUMEAK



**HEZKUNTZA
ERAGILEEN
IBILBIDEA**

Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politekniko eta ekintzailetzakotan egindako saioak. Arizmendi ikastolarekiko lankidetzak.

700 ikaslek parte hartu dute prestakuntzetan

242





Interkooperazioa

IKO-MONDRAGON UNIBERTSITATEA



MUNDUKIDE SARIA

Raquel Calvo Larralde eta Elena Molina Merinok zuzendutako "Yungay 7020" filma izan da Mundukide sariaren irabazlea, HUHEZIMENA film laburren 15. edizioko jaialdian. Orain dela 5 urte hasi zen Mundukide eta Muren arteko lankidetzak, Giza eskubideen eta justizia sozialaren gaiari presentzia emateko.

AGENTE KOOPERATIBOAK



GABON POSTALAK

Zazpigarren urtez jarraian jarri ditu Mundukidek enpresa eta erakunde zuzendutako online postalak salgai. Urtetik urtera gero eta kooperatiba eta erakunde gehiago dira Mundukideko webgunean postala aukeratzaren dutenak eta modu erraz eta solidarioan lankidetzak programekin kolaboratzen dutenak.

EROSKI BIDAIAK



MUNDO XPLORA

2019an Laboral Kutxa eta Mundukideren eskutik 11 gaztek Ekuadorrera burututako bidaiaren argazki erakusketa ezarri guten Bilboko Xplora eraikinean azaroan zehar. Bidaian parte hartutako 2 partaideren hitzaldia ere antolatu zen bizitako esperientziaren berri emateko.

ENEKO ATXA SUKALDARIA



MUNDUKO ERREZETARIK ONENA

Neguan aurkeztu guten Azurmendi Jatetxeko chefa den Eneko Atxa enbaxadoreztat izan duen #Mundukoerrezetarikonena fondo biketarako kanpaina. Kanpainaren helburua, lankidetzak programak bizirik mantentzeko bitarteko ekonomikoak lortzea izan da, bide batez esperientzia kooperatiboan oinarrituz milaka pertsonen ekonomiak hobetu ahal izateko.

Interkooperazio sistemaren bidez, Mundukidek Mondragon Esperientzia Kooperatiboa osatzen duten zenbait eragileren parte hartzea bultzatzen du, lan kooperatiboaren munduan hegoaldeko herrialdeekiko elkartasuna sustatuz.



ULMA TALDEA



BRASIL PROGRAMAREKIN ELKARLANA

Ulma Taldearen eta Mundukideren arteko lankidetzaren ondorioz, Ulmako bazkidea den Itziar Aranburu Brasilen ari da kooperante lanetan. Itziar bezalako pertsonen lana oinarritzeko da bertako kooperatibetan ekoizpena eta komertzializazioa hobetzeko.

HARREMAN / HIRUATX/ MUNDUZABAL



GGKE ELKARLANA

Mundukiderentzat, GGKEen laguntza ezinbestekoa da lankidetzeta programak egoki kudeatu ahal izateko. Momentu honetan Hiruatx, Munduzabal eta Harreman dira Ekuador, Kolonbia eta Mozambikeko proiektuekin bat egiten dutenak.

EROSKI FUNDAZIOA ETA EROSKI KOOP. ELKARTEA



BOLUNTARIOTZA PROGRAMA BRASILEN

Gizarte Eraldaketarako Boluntariotza kooperatiboa" programaren bidez, Mundukidek Brasilen gidatzen dituen lankidetzeta programekin kolaboratzen du Eroski kooperatibak. Lankidetzeta eredu berritzaile honek aukera ematen die bai Eroskiko bazkideei bai Eroski kooperatibari maila pertsonalean zein profesionalean esperientzia aberasgarri bat bizitzeko eta hegoaldeko herrialdeekin lankidetzan aritzeko.






Datu ekonomikoak



DIRU SARRERAK	1.857.248 €	%100
KOOPERATIBAK	574.346 €	% 44
ERAKUNDE PUBLIKOEN DIRULAGUNTZAK	950.848 €	% 32
BESTELAKO DIRULAGUNTZAK	64.426 €	% 7
GGKEak	55.420 €	% 3
PARTIKULARRAK	98.039 €	% 7
BESTELAKOAK	94.351 €	% 6
SEGURTASUN FONDOTIK ERABILIA	19.817 €	% 1
GASTUAK	-1.857.248 €	%100
INTERKOOPERAZIO GASTUAK	-1.591.182 €	% 86
INTERKOOPERAZIOA MOZAMBIKE	-454.819 €	% 25
INTERKOOPERAZIOA BRASIL	-661.941 €	% 35
INTERKOOPERAZIOA KOLONBIA	-146.298 €	% 8
INTERKOOPERAZIOA EKUADOR	-72.248 €	% 4
INTERKOOPERAZIOA ETIOPIA	-87.884 €	% 5
GIZARTE-ERALDAKETARAKO HEZKUNTZA	-122.410 €	% 7
INTERKOOPERAZIO OROKORRA	-45.581 €	% 2
GASTU OROKORRAK	-266.065 €	% 14
FONDOEN KAPTazioA	-42.198 €	% 2
SENTSIBILIZAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA	-80.706 €	% 4
KUDEAKETA	-143.160 €	% 8
EMAITZA	0 €	


GASTUAK ATALKA

- NAZIOARTEKO LANKIDETZA
- SENTSIBILIZAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA
- FONDOEN KAPTazioA
- KUDEAKETA



NAZIOARTEKO LANKIDETZA

- INTERKOOPERAZIOA MOZAMBIKE
- INTERKOOPERAZIOA BRASIL
- INTERKOOPERAZIOA KOLONBIA
- INTERKOOPERAZIOA EKUADOR
- INTERKOOPERAZIOA ETIOPIA
- GIZARTE-ERALDAKETARAKO HEZKUNTZA
- INTERKOOPERAZIO OROKORRA



Kontuak LKS Auditoresek auditatutakoak dira eta auditoriaren txostena <https://mundukide.org/eu/nor-gara/gardentasuna/> helbidean dago ikusgai, urteko kontuekin batera.